

## NO LA JOKA EUSKAL HERRIA EUSKALDUNTZEKO?

Hona hemen buruhaustez beterik gabiltzan euskalzaleon arazorik nagusiena. Sarri, gure barneko bakar unetan, astiro eta arduratsu hausnartu izan dugun kezka bizia. Euskadiren geroa ere, hainbate-tan baldintzatzen duena. *Kartnel-zaleok*. aspaldidanik kezkatu izan gaituen galdera nagusia.

Azken batetan, Euskal Herri honetan dugun hizkuntza-burruka-ren muina euskaldunok euskaraz bizitzeko beharrezko dugun ingurua lortzean eta horretarako urratsak ongi ematean datza. Beraz, *euskaraz bizitzeak* zer suposatzen duen eta *zeintzu urrats eman beharko diren* horretarako aztertzea jo nahi dut lantxo honetan.

Ardats bi hauetan oinarriturik dugu, izan ere, gure hizkuntz-po-litika osoa. Galdera hauek ditugu, nonbait, Euskal Herria berreus-kalduntzeko euskarri. Arazo bi hauek nola bideratu, hala izango da, seguraski, gure hizkuntzaren geroa.

A) Mola lor dezakegm egiaz hala nahi doguook,  
euskaraz bnitztea?

Gaur egun, denok dakusagu, euskaldunok geure Euskal Herriko Lurraldeetan zehar bazterturik aurkitzen garela eta gure arteko hiz-kuntza nagusia eta nahitaezkoa, zoritxarrez, erdara, zein gaztelera zein frantsesa, dugula.

Ezin dugu ingurutako gizartean pausurik eman euskara hutsez baliatuz, hainbestearino heltzen baita inguru horietara hizkuntza estataltan zapalkuntza. Egoera erdaldun batetan murgildurik, ito beharrean aurkitzen garela aitortu beharra daukagu, ba.

Hain zuzen, hiri handietan edo eta kale giroan bizi garenoi erdara eguneroko arnas eta jan-edari bihurtu zaigu. Gehiago oraindik. Baserrri giroan bizi direnek ere, etxe inguruetatik irten nahi baldin badute, edozetarako erdararen premia gorria aurkitzen dute. Hain handia eta sakona da gure inguruetakoz hizkuntzen zapalkuntza eta hain sendoak euskara askatzeko puskatu beharko ditugun kateak.

Euskaraz bizitzeak, bestalde, gure eguneroko harreman guztiak: etxeak, ikastetxeak, lanekoak, kalekoak, komunikabideak, administrazioak eta abar euskaraz egin ahal izatea suposatzen du; baina euskaldunok ez dugu holakorik ez eta antzerakorik ere, egun, inguruotan ez eta, oraingoz, bide horretatik benetan aurrera egingo dugun itxaropen sendorik!

Arazoa honela, euskara gaurkoz ezin dugu edonon eta edonoiz eta edonorekin erabili eta ez da inoiz benetan hizkuntza ofiziala izatera ere helduko. Euskaldunok, ba, batek daki noiz arte, diskriminaturik jarraituko dugu geure etxean bertan.

Berehala, egoera hau konpotzeko konponbideak jartzen ez baldin badira, ez da sekula santan hain harrotsu aipatua den elebitasun don-tsurihurtuko. Eta euskarak, orain arte bezala, erdararen otsein, hobeki esanda esklabu, jarraituko du.

Nolako pausoak eman beharko, ba, gure egoera zapaltzaile hau gainditzeko? Nola jokatu benetan euskaldunok euskaraz bizitea lortzeko? Hala ez ete dugu euskaraz bizitzeko eskubiderik? Zer egin, beraz, edo nola jokatu euskaldunok egoera hau aldatzeko?

Ikerketa hau, hizkuntza barne-barnetik gizartearen bizitzari loturik joan ohi dela gogoratuz hastea komeni zaigu. Hizkuntza gizartearen ispilu izan ohi denez, kontutan hartu beharko dugu gaurko gizartean hizkuntza biziak, mintzatuak, gorpuzteko bi euskarri behar dituztela: iguru sozial egokia eta indarberritzeko medio berriak.

Euskarak indarberritzeko eta bizirik irauteko behar duen inguru sozial hori gauza jakin batzutan gorpuzten da: *Harriko ingurugiro*

*osoari euskal kutsua ematean, euskarari Komunikabideetan benetako tokia egitean, euskara Administralgo eta Irakaskunfzako dorretan eramatean, hots, gure giza-bizitzako alor guztiak euskal kutsuz betetzeari.*

- 1) Nola email Herriko ingurugiro osoari euskal kutsua?

Lehen bait lehen agiriko iragarki guztiak euskaraz jarriz. Horretarako ez da nahiko Herri, Bide, Kale izenak euskaraz jartzea. Horretaz gainera bestelako iragarki guztiak ere euskaraz beharko ditugu, hala nola denda-bulegoen deiturak eta bertan ikusi ohi diren iragarki idatzi guztiak. Honela, Israelen lortu duten antzera, Euskal Herri erdaldundu honi bestelako aurpegia emango genioke, euskal kutsu hori egitean, jendea euskara erabiltzera edo eta ikastera bultzatuz. Honen garrantzia ikusteko gogora ditzagun adibideren batzu:

a) Irundik Hendaiara igarotean, berehalaxe nabaritzen da halako hizkuntza mugaren bat igaron dela eta hori inorekin hitz egin aurretik. Agiriko inguruak aditzera ematen digun zerbait da. Eta guztiok psikologikoki beste hizkuntza erabiltzeko gertatzen gara. Ez dugu, ostera, holakorik ikusten Zaragozatik edo Burgosetik edo eta egazkinez Madriletik baldin bagatoz. Euskadik gaurkoz inguru-sozial erdalduna du eta hizkuntza indarberritzekotan hori ere zeharo aldatu beharko dugu. Gaur egunez, gure giza-inguruak ez digu Euskal Herria, herri euskalduna denik adierazten.

b) Beste hau, oraintsu neuri gertatua dugu. Euskararen irakaskuntzarako jakingarria izango zela hizkuntz-irakaskuntzan eginiko aprobak biltzea eta Bilbon, Begonan dagoen *Colegio Aleman* deritxonera hurbildu nintzen. Eta harriturik geratu, gainera! Ikastetxearen inguruko zelai zabaleko atletik sartu eta ez nuen ezer erdaraz idatzirik aurkitu. Den-dena, iragarki guztiak, aleman hutsez. Han ibili nintzen batetik bestera idazkaritza aurkitu ezinda. Azkenean irakasle batengana jo behar! Une batez, beste mundu batetan, hain zuzen Alemanian, nengoela edo uste izan nuen. Eta hori, hemen Euskal Herriko Hiri nagusi honetan egonez! Giro horretan nahitaez ikasi behar umeez, ikasten duten bezala, alemana! Ba dugu bazterretan lainoetako asmakeria eta ezdabaida antzuak aide utzi eta zer ikasi.

2) **WdDa** egin euskarari Komuniikabidsefao benetako tokia?

Medio hauek ditugu gaurko euskaldunok munduko eta herriko berrietara heltzeko ate-leiho. Hauen bidez eskuratu ohi ditugu gaur egunetako informaketa gehienak. Garrantzi izugarria dute, beraz, gure bizitzan. Hori dela eta:

a) *Lehen bait lehen Euskal Telebista behar dugu:* Bertan> batez ere ume-gazteentzat eginiko programa bereziak eskeini beharko lirarteke, horiengan baitu eragipen neurriezina medio honek.

b) *Egun osorako irrati saioak ere beharrezkoak dira.* Saio hauen artean, bereziki arreta handiz aparteko saioak gertatu beharko lirarteke euskalduntzen ari direnei laguntza eskeintzeko.

c) *Egunkarietan ere euskarari toki ugariagoa eman beharko zaio.* Erakunde Publikoek, beraiek ordaindurik, gure arteko egunkariak astean bi edo hiru eranskin edo orri euskara hutsez ateratzea bultzatu beharko lituzkete. Hauek, euskaldunak euskaraz irakurtzera bultzatzeaz gainera, laguntza ederra izango lirarteke euskara ikasten ari direnentzat.

**3] Nola eraman euskara Atminisfralgo eta Irakaskuntza alorretara**

Alor bi hauek batez ere berreuskalduntzerako dute garrantzia, nahiz euskararen geroa, ume-gazteak euskaldunduz finkatuko dutelako nahiz euskarari, Erakunde publikoetan tokia duela eta, prestigio soziala emango diotelako.

a) *Atministralgoan*, hots, Udaletan, Eskoletan, Seguritate Sozialetan, Garraio-alorretan..., tokia behar du euskarak. Nahiz eta ezin guzti horiek berehala euskaratu, nahitaezkoa dugu horretan ere urratsak ematea, nahiz bertako langileak euskaratuz nahiz bertarako euskaldunak hartuz.

b) *Irakaskuntzan*, egin diren ahaleginak aparte asko dugu oraindik egiteko. Hemen, oraingoz, galdera erraz batzu egingo nituzke: Noiz esijituko zaie ikastetxe pribatuei euskarari tokia egitea? Zenbateraino utz dezakegu, umeak euskalduntzea gurasoen eskutan?

Ondorio gisa, berriz ere, euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubi-

derik baldin badu, gure Herriko ingurugiroa euskalduntzea eskatuko nuke. Nekez jasoko du euskarak bururik, Euskal Herri honi erdal aurpegia kendu eta euskalduna ematen ez badiogu.

Ez dut beste munduko eskaririk egiten: Bakar-bakarrik euskaldunoi euskaraz bizitzeko eskubidea onartzea eta euskaldun egin nahi dutenei horretarako nahitaezko duten ingurugiroa eskeintzea.

B) Mora zuzendu abaiegnak euskara indarberritzeko, euskaldun ditugun eskualdeetara ala euskara gaDdua dufenetara?

Hona hemen aurrekoaren haritik datorkigun garrantzi handiko beste galdera bat. Bizitza euskaraz egitekotan erantzun beharrekoa. Gure Herriaren berreuskalduntzea egiteko zein dugu, egitan, biderik egokiena? Nora bideratu beharko, batez ere, gure ahaleginak? Nundik hastea dugu garrantzitsuena?

Nik, neuk ez nuke, galdera hau egiterakoan, dikotomia batetan erori nahi, Euskal Herria berreuskalduntzeak inguru bi horietan bateratsu lan egitea eskatzen digu eta. Euskara, Euskal Herri osoko hizkuntza izanik, Euskal Herri osoan berbizitu beharko da, nahiz eta tokian tokiko beharizen arabera plangintzan egiten saiatu.

Hori dela eta euskarak azken mende honetan izan duen atzerakada kontutan hartuz eta oraingo egoera aurrean dudala bi bide desberdin hartuko nituzke:

—*Lehen eta behin* euskararen atzeraka geldierazteko, oraindik euskarak bizirik eta indartsu irauten duen Lurraldeetako plangintzei aparteko laguntza eskeini. Honela atzeraka hori gelditzeaz gainera, gure hizkuntzak gaurkotzeko nahitaezko duen giroa sortuko litzateke, Lurralde horiek besteak euskalduntzeko lagungarri bihurtuz.

—*Era berean*, hizkuntzaren bizitza gizartearekin hain hertsiki loturik izanik eta hizkuntzaren bizitzan prestigio zozialak sinestezi-nezko garrantzia duelarik, euskara hiri handietara eramaten saiatuko nintzateke, euskalduntze-kanpaina indartsu batzu antolatuz.

Irtenbide hauek konkretatzerakoan, bi era desberdin proposatuko nituzke, ba, beharizenen arabera jokatzuz:

- 1) Euskara, galtzeko arnskuan duten Lusraldeetak plangintzei begirapen berezia eman

Horretarako, Lurralde zabal batetako hizkuntz-komunitate osoa besarkatuko duten plangintza bateratuak eratu beharko ditugu, gizarte barneko pertsonen harremanen arabera Lurralde horiek egoki taxutuz.

Honela, Euskal Herrian zehar halako hizkuntz-zirkulu aukeratu eta itxi batzu eginez, epe labur batetara gehiengoz euskaldun izango liratekeen Lurraldeak lortuko genituzke. Hizkuntz-Lurralde berezi horiek, legaminaren antzera, berreuskalduntzearen eragile bihurtuko lirateke.

Horrek, era berean, halako Lurraldeetan hizkuntz-politika osoa eta bakarra egin eta martxan jartzea eskatuko luke. Euskarari, esan bezala, aparteko dinamika eta nahitaezko duen ingurugiro euskalduna emango liokete, nonbait. Horrek, bestalde, giza-harreman guztiak euskaraz egitea lortzeko medio handiak hizkuntz-lurralde horien zerbitzuan, jartzea ere eraturiko luke.

Hizkuntz-lurraldeok aukeratzea, ostera, Euskal Herrian lehendik ere ezagunak ditugun eta gaur egun ere berezko harreman-inguru bakarrak osotzen dituzten mugei jarraituz egin daiteke. Hala nola: *Markinaldea*: Markintxebarri-M ARKIN A-Golibar-Berriatu-Ondarru; *Le-nitzaldea*: Aramio-Garagartza-ARRASATE-Eskoriatza-Aretxabaleta-Gatzaga; *Arratialdea*: Zeanuri-Areatza-ArteagaJGORRE-Dima-Bedia-Usan-solo; etabar.

Halako berezko hizkuntz-lurraldeetan bi motako pertsonekin egin dugunez topo, hots, euskaraz mintzatzen direnekin edo eta euskararik ez dakitenekin, plangintzak egiterakoan ere desberdinak egin beharko ditugu batzuentzat eta besteentzat.

Plangintza osotu horiek, gainera, ongi koordinaturik eginak izateak zenbait baldintza zehatz betetzea suposatuko luke. Hain zuzen, lehen aipaturiko giza-ingurugiroa, lurraldeko eremu osoan, euskaldun egitea: Hau da:

—Hizkuntza-Lurralde horretan euskararen aldeko propaganda ugaria eta zehatza egitea, horrela pertsona helduei nahiz euskara ikasteko nahiz euskaraz alfabetatzeko gogoak sortertzeko. Euskara ikasteko eta erabiltzeko gogo bizitu beharko da, batik bat.

—Irakaskuntza, ikastetxe guztietan, zein publikoetan zein pribatuetan, oso osoan euskalduntzea, O.H.O.-ra heltzerakoan ume guztiak euskaldun izatea lortzeko bide diren Hautzaindegi eta Eskolaurre euskaldunak ezarriz. Honela, euskara kaleratuz, ingurumaria osoa bat-batean euskaldunduko litzateke.

—Azkenez, Lurralde horretako inguru osoari euskal kutsua ematen saiatu beharko da, horretarako lehen aipaturiko medioak euskararen zerbitzuan jarritz. Hori lortzeko zenbait ekintza kultural eta antolatu beharko dira, hots, mintzaldiak, dantzaldiak, zinemaldiak, biltoki euskaldunak eta abar.

Honela, Lurraldez lurralde, Euskal Herrian zehar hizkuntz-inguru euskaldunak sortuko genituzke. Hauek euskararentzat indargile eta euskaldun berrientzat lagungarri izango genituzke, nonbait, eta euskarak bizirik irauten duela eta euskaldun bizi gaitzeko la amango lukete aditzera.

- 2) Euskararik mintzatzen ez den tokietan adinekoen euskalduntzea hultzatu eta ikastetxe berezi euskaldunak sortu

Nola jokatu, baina, euskara guztiz edo ia guztiz galduta duten hizkuntz-lurraldeetan? Zer nolako hizkuntz-politika jarraitu halako tokietan? Benetan merezi du halako Lurraldeetan euskalduntzea egiten ahaleginak erretzeak?

Nahiz eta bereziki, hizkuntz-inguru hobe ikusten den lekutarako plangintzak egin, nire ustez, aparteko garrantzia du hiriburuak euskalduntzeak, hauek giza-eredutzat hartzen diralako. Hizkuntzak, esan bezala, irauteko prestigio soziala ere beharrezkoa du eta hori hainbatetan halako tokietan lortzen da. Horrek sorrerazten die herrietako euskaldunei euskararen baliogarritasuna.

Hizkuntz-lurralde berezi horietarako eginiko plangintzaek ez dute benetan ondorio ugarririk ekarriko, era berean euskarari ghetto kutsua kendu eta prestigio eta baliogarrakasun soziala eman ezik. Hori dela eta dugu beharrezko hirietako berreuskalduntzea bultzatzea. Bi alorretan lan egitea suposatuko luke:

- a) *Adinekoak euskalduntzea*. Alor hau arreta handiz aztertu beharra dugu. Hemen datza nire ustez, hainbatetan euskararen geroa.

Adineko hauek berreuskaldunduko dituzte erdal-lurralde horiek. Hauen eskutan dago, neurri handi batetan, Euskadiko indar-politikoak eta hauek norantz egin, harantz joango da gure hizkuntza ere.

Hori dela eta, benetako bultzada eman behar diogu berreuskalduntze honi, taldekeriak eta aide utzirik. Euskaldundu nahi duten guztiei benetako aukerak eskeintzen saiatu behar dugu. Euskararen aide egin genezaken inbertsiorik ederrena litzateke.

b) *Irakaskuntza euskalduntzea*. Alor honetan, oster, hirietan edo eta euskararik egiten ez den tokietan, beste hizkuntz-politika bati heldu beharra ikusten dut. Badirudi, orain arte erabilitako bideek ez dutela espero zen aineko ondorioz ekartzen. Ez dut uste, orain bezala jokatzuz inoiz Lurralde horiek euskaldun egingo ditugunik. Eta hau, gebien bat, inguru sozialaren laguntzarik ez dutelako, da.

Hori dela eta, Euskal Herri osoan umeen euskalduntzeari benetako erantzun osoa emateko aukerarik ez dugun artean, interesatutako eskabideen arabera, hor hemenka ikastetxe euskaldun bereziak jartzera ekingo nioke, *ikastetxe bauetara umeak bidaliko dituzten sendikoak euskara ikastera behartuz*. Bestalde, sendi osoari halako jarrera pertsonala eskatzeaz gainera, ume horiek Haurtzaindegietan hasi eta euskaratuz jokatu beharko da,

Baina zein litzateke honen helburua? Euskara benetan eguneroko bizitzan erabiliko duten, nukleo euskaldun batzu, Euskal Herri osoan zehar, batez ere hiri handietan, lortzea.

Umeek, egitan euskalduntzekotan, giza-inguruan gaur egun erdarraren eragipena hain handia delarik, gutxienezko euskal ingurugiroa behar dute eta hori ikastetxe-sendi giro euskaldun batetan lor daiteke bakarrik.

Orain, borondatez jokatu arren, indar eta diru asko alperrik erretzen ez ete gabiltzan nauzue pentsetan. Hizkuntzaren irakaskuntza bideratzerakoan ez da inolaz ere nahiko ume horiengan euskaraganako zaletasuna edo lortzea. Umeei metodo egokiak erabiliz euskara benetan irakastea lortu behar dugu. Eta hau, zoritxarrez, ez da hainbat eskoletan lortzen. Zeinbait tokitan ibili baino ez da egiten!

Horregatik, ikastetxetako barneko eta inguruko giroaren desegokitasunaren erruz, zenbait irakasle guztiz lur jota edo umei euska-



rarik irakatsi ezinda agiri zaizkigu. Metodoric egokienak eta ahaleginik zintzoenak alperreko Ian egiten zaizkie!

Umeek, benetan euskaldun egitekotan, ikastetxe barruko giro osoa euskaraz izateaz aparte (Zer lortuko, beraz, hiru-lau ordutako klaseetan, ikastetxeko giro osoa erdalduna delarik, sarri irakasleak ere euskararen aurka izanez, euskara besterik ezean onartu den tokietan?) gutxienez sendiko giroa ere euskalduna behar dute. Bestela kontra-esan gogorretan erori eta euskara ikastetxe barruko hizkuntza baino izango ez denez, umeen barne-munduan etendurak sortu eta egoera diglosikoak finkatuko ditugu.

Horrela, oratuz, behar bada, plangintza motel kaxkar batzuren bidez hainbeste urtetan euskaldun egingo ez ditugun umeak, euskara ikasi-ezina dela uste izatera bultzatuko ditugu. Eta hori oso larria litzateke gerora begira!

Baina nork ezarri txintzarria katuari? Ez ote litzateke lehen eta bigarren mailako euskaldunak sortzea edo? Ez ete genituzke gure auzoetan diskriminazioak sortuko?

Ikastolei ere halakoak leporatu dizkie sarritan, nahiz eta oraingoz Euskal Herrian umeak benetan euskalduntzeko alternatiba kakarra izan. Euskararen geroa dugu hauzitan eta ezin dugu sasi-arrazoimenduetan nahasi. Ikastoletan ere, batzutan behar aineko fruiturik lortu ez bada, *sendikoei euskara ikasteko baldintzarik ez zaielako ezarri izan da.*

Umeak euskaldundu nahi baditugu nagusiok urratu behar dugu bidea. Geuk egin behar dugu umeak beharrezko duten euskaldun giroa. Eta hau, egin dezakegun zerbait da. Gaur egun, umei ez ezik, gurasoei ere euskara eskuratzeko ahaleginak eskatu behar zaizkie. Ezin dugu inolaz ere, Euskal Herriaren berreuskalduntzearen zama astuna, ume-gaztetxoen bizkarretara bota.

Adineko zenbaitek ezin izango dutela inoiz euskara guztiz ikasi? Behar bada, ez. Baina edonork lor lezake gutxienezko maila, umei ulertu eta laguntza eskeini ahal izatekoa.

Halako ikastetxe bereziak jartzeak, bestalde, ez du inolaz ere bestelako tokietako ahaleginik baztertu ez gaitzetsi nahi. Pixkanaka pixkanaka euskara irakaskuntza osoan eta toki guztietan sartu be-

harko da, bania hori benetako garantia<sup>2</sup> egin arte, halako nukleo euskaldunak sortzearen aldeko nauzue.

Honek, azken batetan, ikastolen eskarmentua gogotan hartu eta beste hainbat eskola publiko eta pribatu bide horretatik bideratzea eskatuko luke, besterik ez. *Hala ere, beti sendikoei euskara ikastea esijituz.*

Azken hlfreak:

Euskaldunok ezin dugu une historiko honetan euskaraz bizi. Erdara dugu jaun eta jabe gure artean. Ito-beharrean dugu gure nortasuna. Azken mende honen baitan euskara hil zorian jarri zaigu. Bestalde, zenbaitek ez dugu euskararik gabeko Euskadirik onartzen. Ez dugu Euskal Herria *vascoen* aberri egin nahi. Hori dela eta gure Aberria berreuskalduntzeko asmotan diardugu lanean; Euskal Herriko gizartea, gizarte euskaldun egin nahiean. Lan izugarria, ba, esku artean duguna. Ongi etorriak, beraz, hori lortzeko argia emateko gogoz asmatutako irtenbide guztiak!

*Patxi Uribarren*